

## Euskal Herriko sagardo onena Andoainen erabaki zen



Hernaniko Akarregi sagardotegiak irabazi zuen Euskal Herriko II. Sagardo Txapelketa Herrikoa, Andoaingo Zumea plazan jokatu zen finalean.

**Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, Andoaingo Udalak eta Ontza elkarteak** antolatuta larunbatean sagardo txapelketa herrikoa ospatu zen. Lagunarteko giro bikainean, afari baten bueltan elkartzutako 200 pertsona izan ziren lehiaketako epaileak. Hori baitu ezaugarri nagusia txapelketa honek, edozein izan litekeela epaile, afarira eseriz, eta bere iritzieren arabera, 1etik 10era puntuak eman ditzakeela.

Bigarren txapelketa honetara 36 sagardotegi aurkeztu ziren, iaz baino 4 gehiago, ia guztiak gipuzkoarrak. Tartean Urnietako lau sagardotegi: **Elutxeta, Eula, Oianume** eta **Setien**.

Andoaingo finalaren aurretik, hiru finalurreko ospatuak ziren, Ordizian, Azpeitian eta Zarautzen hain zuzen ere. Eta finalurreko haietan jasotako puntuen arabera 12 sagardotegi



Andoaingo hamabi finalistak Zumea plazako karpa barruan, erdian txapelduna agertzen delarik.

sailkatu ziren Andoaingo final handirako. Irigoien, Oiarbide, Bereziartua eta Lizeaga, Astigarragakoak; Akarregi, Larre gain eta Itsaburu, Hernanikoak; Oianume, Urnietakoa; Urdaira, Usurbilkoa; Eguzkitza, Tolosakoa; Tximista, Ordiziakoa; eta Uxarte, Zornotzakoa. Baina, Andoaingo finalean epaile lanak egin zituzten 200 pertsonak ez zekiten zein ziren finelara iristea lortu zuten sagardotegiak.

Afaria giro bikainean igarozten, eta bertan, Txomin, eta bere lantaldeak prestatutako, eta Ontza elkarteko bazkideek zer-

bitzatutako kalitatezko hainbat produktu dastatzeko aukera paregabea izan zuten, banan bana sagardo ezberdinak probatu eta puntuatzen zituzten bitartean.

Afariaren amaieran Unai Agirre antolatzaileak sailkapenaren berri eman zuen. Lehenik finalurrekoen berri eman zuen. Ordizian, Astigarragako Bereziartuak jaso zituen punturik gehien, Azpeitian, Urnietako Oianumek, eta Zarautzen Hernaniko Itxas-buru sagardotegiak. Hori jakinarazi ondoren, final handiaren emaitzen berri eman zuen. Eta aurten txapela

Hernanira joan da, Akarregi sagardotegira. Bigarren postua, Astigarragako Lizeagak lortu zuen eta Hernaniko Itxas-buru hirugarrena.

Sari banaketa ekitaldian hamabi finalistek plaka bana jaso zuten, hiru lehenek garaikurra, eta irabazleak txapela eta bertaratutako txalo zaparrada. Lehiaketa honetan parte hartu duten sagardogile gehienak bertan izan ziren larunbateko afarian, eta txapelketaren garrantzia azpimarratu zuten, herritar askoren iritzia ezagutzeko aukera ematen dielako.

## Hodei Olaizola ekimena



Ezintasun larriak dituen gaztearen alde elkartasunezko jaialdia antolatu dute Basteron.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

## Euskaraz bizi nahi duen herria



Joan zen larunbatean egun osoko ospakizuna egin zuten, giro ederrean. Andoaindarrak Euskaraz lehen egunaren kronika, irudi ugariarekin osatuta.

[GEHIGARRI BEREZIA]

## Alderdi abertzaleak nagusi

EAJ-PNV eta EH Bildu izan ziren boto gehien lortu zituzten bi alderdiak, aurreko igandean Andoainen eta Urnietan. Andoainen ezker abertzalea nagusitu zen, eta Urnietan jeltzaleak.

[ESKUALDEA, 2-3. ORRIALDEAK]

## “Anatx” urnietarra gogoan

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]



“Bi andoaindar, eliza bat: Jujuytik Goikoplazara”

## Garagorri-Goikoplaza ibilbidea, primerakoa



Parte hartu zutenak, bai euskarazkoan bai gaztelerazkoan, oso gustora ibili ziren ibilaldian barrena.

Joan zen igandean, irailaren 25ean egin zen aurreneko Garagorritik Goikoplazara ibilbidea, Andoaingo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolaturik Europako Ondarearen Jardunaldiak egitarauaren barruan. Zehatz esateko, antolatzaileek izen honekin iragarri zuten ibilbidea: “**Bi andoaindar, eliza bat: Jujuytik Goikoplazara Garagorri barrena**”.

Andoaingo Udalak eta Aldundiak Larramendi Bazkuko eta Olagain eta Bertxin Jubilatuen Elkartetako kideen laguntza izan zuten ibilbidea antolatzeko.

Ibilbidearen helburua, Andoainean jaio baina atzerrira jo zuten bi andoaindarren, Manuel Larramendi eta Agustín Leitzaren bizitza eta ibilbidea ezagutzera zen eta, azkenik, bi andoaindar horien esku hartzeaz eraikitako Toursko San Martin eliza ezagutzera ematea.

Goizeko hamarretarako 50 lagundik gora elkartu zen Garagorri baserriaren atarian, batzuk autobusez igota, besteak oinez. Bertan bi talde osatu ziren: talderik handienak ibilbidean zehar egin beharreko azalpenak euskaraz entzun zituen; besteak, berriz, gazteleraz. Larramendiren jaiotxe izandako Garagorri Larramendi Bazkuko kideengandik lehenengo azalpenak entzun ondoren, ibilaldia hasi zen Goikoplazara, bidean beste hiru geldialdi eginez Aita Larramendiri buruzko azalpenak entzuteko: Etxabe, Argi-argi eta Baltzusketa baserrietan.

Baltzusketan amaitu ziren Manuel Larramendiren bizitza eta obrari buruzko azalpenak eta partaideek Goikoplazara jo zuten, bertan Olagain eta Bertxin Jubilatuen Elkarteko kide-

*Goizeko hamarretarako 50 lagundik gora elkartu zen Garagorri baserriaren atarian*

engandik Agustín Leitzari buruzko azalpenak entzuteko, berau izan baitzen Argentinako San Salvador de Jujuytik dirua, diru mordoa, bidali zuena andoaindarrek, Larramendiren gidaritzapean, bere eliza berri dotorea egin zezaten Goikoplazan, Goiburukoa alde batera utzita.

Goikoplazan lehenengo azalpenak entzunda, elizara sartu eta bertako ezaugarriak ezagutzeko aukera izan zuten ibiltariek. Amaitzeko, korura igo

eta bertan Nemesio Olariagak herriari oparituriko J. Merklin & Cie. organo bikaina bertatik bertara ezagutu zuten Ana Belen García irakasle eta organo jotzailearen eskutik. Ezin buka ibilaldia organo horren soinuk entzun gabe, guztien gozagarri.

Esti Mujika Kulturako zinegotziak partaide guztiei esker eman ondoren, hamaiketako txikia egin zuten kontzejupan.

Parte hartu zutenak, bai euskarazkoan bai gaztelerazkoan, oso gustora ibili ziren ibilaldian barrena, egurastuz eta, aldi berean, bi andoaindar handi horien berri jasoz. “Luzexa goa ere egingo genuke gustora!” zioen batek, laburregi egin zitzaielakoan.



Nemesio Olariagak herriari oparituriko J. Merklin & Cie. organo bikaina bertatik bertara ezagutu zuten Ana Belen García irakasle eta organo jotzailearen eskutik.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

## Ikasturte berria, gobernu berria

Ikasturte berriarekin batera euskal erki-degoko gobernu hautatzeko aukera eman zaigu, eta horregatik bi izenburuak elkarrekin lotu ditut. Ikasturte berria hasteko uda atzean utzi behar: udako beroaldiak, argia, hondartza, itsasoa; finean oporraldia. Eta jada udazkenean sartu gara. Egunak laburragoak dira; eguzkia epelagoa eta itsasoa hotzagoa da. Udak kanporatzera bultzatzen gaitu; Udazkenak, aldiz, barneratzera, isiltasunera, hausnarketara. Natura bera ere, gainbehera hasten da: hostoak horitzen; zuhaitzak biluzten. Udazkenak badu bere xarma, udak edo neguak duen bezala. Iritsiko da udaberria; zuhaitzak sortuko dituzte kimu berriak eta gudan ere sortuko dira energia eta asmo berriak. Naturaren zikloan murgildurik gaude.

### GOBERNU BERRIA

Ikasturte berriarekin batera, esan bezala, hauteskunde berriak izan ditugu. Oraingo honetan Lehendakari zarako eta Legebiltzarreko. Besteetan, idatzi izan dit hauteskunde garaian baina, oraingoan, kanpaina jarraitu dut eta, egia esan aspergarri samar egin zait. Zarata asko, hitz ugari, agindu gehiegi eta mami gutxi. Horrekin ez dut esan nahi ez dutela interesik, pertsonok norbakoak eta herri baten partaide baikara. Eta emaitzak ezagutu ondoren, ba, nire hausnarketaxoa egitea erabaki dut Aiumuriko zutabearen, ikasturte berria estreinatuz horrela.

Hauteskunde aurretik inkestak zabaldu ohi dira bozka nori eman zailantzan daudenak mugiarazteko, baina, ez naiz harrizten inkestak nola egiten diren ikusita, zenbaitetan huts egiten dutela eta emaitzak guztiz alderantzizkoak izatea. Halere, gaurkoak ez dira inkestak datu errealak baizik. Dena den, nire irudiko, oraingoan eta Euskal Herriari dagokionez, nahiko ondo asmatu dute.

Alderdiei dagokionez, EAJK bozka asko lortu ditu abantaila handia lortuz. Bozka horiekin Urkulluk lehendakari izateko ez du zailtasunik izanen. Gehien-go absolutua, ordea, zorionez, ez du izango eta itunak, akordioak lortzen saiatu beharko da. Hori beti da onuragarria herritarrentzat. Jakina, itunak egitekoan kontuan hartu beharko du batekin lortzen duena besteak kanpo utzi ez ditzan. Nire ustez, era askotako itunak egin daitezke. Badirudi borondate hori egon badagoela. Kontua izango da PSOEkin itun itxia egiten badu, nola demontre garatuko duen hainbat aldiz errepikatutako mantra hori: status berriarena, alegia.

EH Bilduk nahiz eta aurrekoarekin

alderatuz botoak galdu, gorantz egin du. Aitortu behar dut kanpaina ona egin duela, beti ere, Arnaldok duen karisma kontuan hartuta. Espainiako Gobernuari inhabilitazioa ez zaio merke irten. Ondo jokatu dute, ez dira probokazioan erori eta bereari ekin diote. Bestalde, eta beti ere nire ustean, jende eta aurpegi berri asko sartu dira, batik bat, emakumeak. Lehengo aurpegiak atzean geratu dira eta, berriek aire berria eman diote. Nik uste, oposizioan lan sakona egin dezaketela Elkarrekin Podemosekin, eta zenbaitetan PSOErekin ere bai. Zergatik ez? Bakegintzan, biktima guztien errekonozimenduan, presoen hurbilketan eta erabakitze eskubidean ildo berriak ireki ditzake. Badago aitzurra non sartu.

Elkarrekin Podemos indartsu sartu da. Jakin banekien ez zituela Espainiako hauteskundeetan lortutako emaitzak errepikatuko. Hauteskunde bakoitzak, testuinguruak kontuan harturik, erabat desberdinak dira eta halaxe gertatu da. Beraz, ez da analista zorrotza izan behar datu hori kontuan hartzeko. Alor sozialetan zein enpleguaren sorreran eta abarretan EH Bildurekin bat egin dezake eta nola ez, erabakitze eskubidearen aldeko lanean ere bai.

Ez da guztiz erraza izango, ezen badakigu Elkarrekin Podemos ez dela independentista eta, ez duela inondik ere Kataluniako bidea hartuko. Baina nire ustez, eta hori gustatuko litzaidake, EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos adostasun batzuetara iristea, eta hor adosten dutena herriari bozka dezan proposatu.

Askotan esan dut erabakitze eskubidea eskubide demokratikoa dela eta ez dela nahastu behar independentiarekin. Gai badira adostasun batera iristeko, bejondeiela. Bakegintzan, biktimak direla nahiz oroimen historikoa dela, gai hauetan ere hiru alderdiek elkarrekin asko egin dezakete. Badago zeregina.

PSOE eta PPK beherakada nabarmena jasan dute. Agian konturatuko dira non dauden eta nolako erantzuna eman behar zaion herri honi. Lehen ere esan dut EAJK hainbeste aldarrikatzen duen status berria eraikitze ko, nahiz eta PSOEkin lege akordioa egin, eskuak libre behar litzukeela beste alderdiekin ere zenbait arlo eta proiektu garatzeko. Ikusteke dago EAJK zein bide hartuko duen, edota norekin “ezkondu” nahi duen.

Ikusi egin behar. Politikatik harago, gure bizitza aurrera doa eta gure barne oreka ez dago politikoen esku. Gu geu gara gure bizitzaren kudeatzaileak.



EAE MAILAKO HAUTESKUNDEAK JOAN ZEN IRAILAREN 25EAN

# Abertzaleak nagusi, alde handiarekin

Andoainen, Urnietan eta Gipuzkoan EAJ-PNV eta EH Bildu izan dira alderdi bozkatuenak, alde handiarekin gainera. Herriz herri, jeltzaleek lidergotzari eutsi diote Urnietan eta EH Bildukoek Andoainen.

Azalpenak eta analisiak antzekoak izan daitezke bi herrietan. Hona, Andoaingo lau indar nagusien bozeramaileek igande gauean bertan eskainitako adierazpenak.



Boto zenbaketa Andoainen, igande gauean bertan.



Andoaingo datuetan alde txikiak daude hiru alderdien emaitzetan.

## EH Bildu

*“EH Bilduren goraldia ikusten da eta gure herriaren etorkizuna eraikitzen jarraitzeko EH Bildu posizio txukunean dago”*

**Jon Zulueta** EH Bilduko bozeramaileak poza agertu zuen: “Ditugun datuekin EH Bilduren goraldia ikusten da eta gure herriaren etorkizuna eraikitzen jarraitzeko EH Bildu posizio txukunean dago. Datozen lau urtetarako herri mailako estrategia

lantzeko eraginkor izango gara”. Herri mailari dagokionez, “esan genuen hauteskunde baikoitzaren atzean gako ezberdinak daudela. Alde horretatik EH Bildu Andoainen oso errotuta dago, eta horren adierazle da gaur jaso dugun babes handia. Lanean jarraituko dugu orain arte bezala, Udalean eta baita gizarte mailan ere. Orain arteko lan moldean sakonduko dugu, urteotako akordio zabalak mantenduz. Jaso ditugun boto horiek guztiak zinez eskertu nahi ditugu”.

## Podemos

*“Alde guztietatik jaso ditugun kolpeak jasota ere, benetako alternatibatzat har gaitzaten gogor lan egingo dugu”*

**Tere Santana** Elkarrekin Podemos alderdiko bozeramaileak lanean jarraitzeko gogoia agertu zuen: “Kanpainan Aiurriri adierazi nion bezala, gure abiapuntua zero zen eta alde horretatik, 11 ordezkari lortu ditugu. Egia da aurreikuspenak handiagoak zirela, baina

ez genuen erreferentzia argirik ezberdin bozkatzen delako Jaurlaritzari edo Kongresuari begira. Hankak lurrean eta alde guztietatik jaso ditugun kolpeak jasota ere, benetako alternatibatzat har gaitzaten gogor lan egingo dugu.

Andoainen alderdikideak elkartuta gaude eta baikor gara, oso zaila da jarraitzaileak hain errotuta dauzkan herri batean agerpena egitea. Eta guk lortu dugu. Horregatik baikor gaude”.

## EAJ-PNV

*“Euskal gizarteak babesa eman dio EAJren proiektuari, herri honen etorkizuna bermatzeko proiektu solido eta errealista aurkeztu dugulako”*

**Mari Jose Izagirre** Andoaingo EAJ-PNVren izenean, hauteskunderen emaitzekin oso pozik agertu zuen: “Beste behin ere, euskal gizarteak babesa eman dio EAJren proiektuari, herri honen etorkizuna bermatzeko proiektu solido eta

errealista aurkeztu dugulako. Urkullu lehendakariarengan konfiantza eta babes zabala ipini du gizarteak, eta gogor lan eginez erantzungo dugu”.

Era berean, Andoaingo emaitzei dagokionez, “boto gutxi batzurengatik lehen indarra izateko borrokan arituko gara. EAJren aldeko olatuak Andoain ere busti du, eta garaile moralak sentitzen gara. EAJren alde bozka eman duten 1858 andoaindarrei esker errak ematea besterik ez zaigula geratzen”.

## PSE-EE

*“Ez gaude pozik, gure emaitzak txarrak izan direlako. Ez dira itxaroten genituen emaitzak”*

**Maidier Lainez** PSE-EE alderdiko buruzagiak emaitza txarrak aitortu zituen igande gauean bertan: “Ez gaude pozik, gure emaitzak txarrak izan direlako. Ez dira itxaroten genituen emaitzak.

Hala ere, argi daukagu

Euskadi justu eta solidaria-ga bat eraikitzeko buru-belarri jardungo dugula”.

Herri mailako datuei erreparatuta, Andoaingo sozialisten buruak antzeko balorazioa egin zuen. Ildo berezian zihuan: “Andoainera begira, gauza bera esan dezakegu. Euskadiko beste herrietan gertatu dena, Andoainen ere isladatu da. Ez dira emaitza onak, baina gure aldetik, etenik gabe lan egingo jarraituko dugu”.

### EMAITZAK ANDOAIN

EH Bildu	1.880	28,11%
EAJ-PNV	1.858	27,78%
PODEMOS	1.203	17,99%
PSE-EE	1.067	15,95%
PP	406	6,07%
C S	136	2,03%
PACMA	52	0,77%
SI SE PUEDE	44	0,65%
RECORTES 0	21	0,31%
PFyV	16	0,23%
LN	3	0,04%

### URNIETA

EAJ-PNV	1.031	37,90%
EH Bildu	704	25,88%
PODEMOS	408	15,00%
PSE-EE	335	12,31%
PP	149	5,47%
C S	45	1,65%
PACMA	19	0,69%
PFyV	13	0,47%
SI SE PUEDE	12	0,44%
RECORTES 0	4	0,14%

### GIPUZKOA

EAJ-PNV	116.989	34,38%	9
EH Bildu	98.181	28,85%	8
PODEMOS	48.338	14,20%	3
PSE-EE	40.262	11,83%	3
PP	24.622	7,23%	2
C S	5.696	1,67%	0
PACMA	2.523	0,74%	0
SI SE PUEDE	1.854	0,54%	0
RECORTES 0	799	0,23%	0
PFyV	799	0,23%	0
LN	187	0,05%	0

### EUSKADI

EAJ-PNV	397.664	37,65%	29
EH Bildu	224.254	21,23%	17
PODEMOS	156.671	14,83%	11
PSE-EE	126.139	11,94%	9
PP	107.357	10,16%	9
C S	21.362	2,02%	0
PACMA	8.550	0,80%	0
SI SE PUEDE	6.036	0,57%	0
PFyV	1.819	0,17%	0
RECORTES 0	2.733	0,25%	0
LN	187	0,01%	0

\*OHARRA Aiurriri Andoainen jasotakoaren eta Euskadi.eus gunean azaldutako emaitzen artean ezberdintasunak daude: Podemos 1181 (Euskadi.eus 1203) PSE 1087 (Euskadi.eus 1067) PP 428 (Euskadi.eus 406)



## PEDRO JOXE MUJIKA BIDEGAIN URNIETARRA PASA ZEN IRAILAREN 20AN ZENDU ZEN

## “Anatx” gogoan

Irailaren 20an zendu zen urnietarra, eta hari buruzko pasarte ederra argitaratu zuen Argia astekariak argia.eus webgunean “Txirrita bertsotan ikusi zuen azken bertsolaria joan da” izenburupean.

Egunotan “Gabon Txirrita” ikuskizuna eskaintzen ari direnean, Anatxek sei urte zituela kantari ikusi zuen Txirrita. Mujika familia bertso munduari lotuta bizi izan da, belaunaldiz belaunaldi.

**Hemeroteka | Argia**  
**Estixu Eizaqirre**

Pedro Joxe Mujika Bidegain “Anatx” (1929an jaioa, Aitzola Bordan “Anatx etxe zaharrea”) zendu zen, irailaren 20an. Gaztetan lagunartean asko kantatutakoa eta plazan Zepai eta Migel Arozamenarekin saioa egindakoa zen. Txirrita bertsotan ikusi zuen bi aldiz, sei urte zituela. Irudi luke bertsolari handiak utzitako mandatuari eutsi ziola Anatx zaharrak bere bizitzarekin: “nere aipamenak izango dira beste larogei urtian”. Aurten bete baitira 80 urte horiek.

Bertsoaren haria Hernanin liburitik jaso ditugu Pedro Joxe Mujikaren testigantzak.

**TXIRRITA BERTSOTAN IKUSI ZUEN AZKENETARIKO TESTIGUA**

“Tiloetan [Hernaniko Ezkiaga pasealekuan], bazen harrizko kiosko handi bat, eta han ikusia nago ni Txirrita kantatzen. Ereñozun eta han, bitan ikusi nuen nik Txirrita, hamabos egunen barruan. Sei urte nituen. Berriz ikusteko amorrarazten nengoan, eta hil egin zen.

Oraindik begitan daukat nola hasi zen Ereñozuko eliza frenteko etxe hartan. Bestea, Saiburu, eliza frentean zen. Ez zen orduan aparatuturik (mikrofonorik), baina adierazten zuten. San Antonioak ziren, eta jendea biltzen zen entzutera.

Tilosetako hartan baziren gehiago, lau bat bai, baina zein ez dakit. Jende asko biltzen zen entzuteko. San Joanetan kantatu zuen azken aldia zen, urte hartan bertan hil baitzen. Hortxe ikusi nuen Paulino Uzkudun. Hortza gorriekin, eta espalda zabalekin, ederra gizona. Beragatik aritu ziren, ‘kanpeon’ eta esango zizkiten. Zilarrezko duroa bota omen zion Txirritari”.

**ZEPAI ETA AROZAMENAREKIN EGINDAKO SAIOA**

Behin aritu zen Zepai eta Miguel Arozamenarekin plazan bertsotan, Ergobiko festetan. Zepai eta Arozamena bertsotan ari ziren plazan, eta Mujika entzutera joana zen. “Ni Arozamenari aritzen nintzen bertsotan, eta etortzeko keinu



Pedro Joxe Mujika Bidegain, senideek Aiurri helarazitako argazkian.

egin zidan. Nik atzera egiten nuen, baina azkenean ekarri naute eta Arozamenak ‘hau ere bertsolaria dugu!’, ‘Ongi etorri! Konponduko gera hemen!’ Zepaik. Orduan bertsotan aritzen nintzen eta, Zepairekin pixka bat lotsagabetu edo ez dakit zer egin nintzen. Gauza handiak egiteko txiki xamarra nintzela bota zidan. Nik erantzun nion etxean zera esaten zigutela: belarri handiak nituela eta koskortuko nintzela, noski. ‘Bertso hori moldatzeko, bertsolaria duk!’ esan omen zion Manuel Matxainek (gai-jartzaileak) Arozamenari”.

“Arozamenak esaten zidan, ‘joan hadi bertsotara, hik nik adina egiten duk, eta nik eramango haut, Basarriengana joan behar diagu’. Haren txofer sartu baitzen Arozamena gaztetan. ‘Motel, nik ez zeukat denborarik Basarriengana eta joateko, gure etxean bazegok lana’ esaten nion”.

**ANATXEN BI BERTSO**

“Guk eskolarik batere ez ge-

nuen. Ni Arriatsu eskolan ibili nintzen sei hilabeteen, eta kabi denbora zen eta ez nintzen joan erditan. Juan Batixta eskolan ibilia zen 14 urtera arte, bere laineza hura izaten zuen. Behin Inaxio ‘Poxta’ laguna eta biok juntatu ginen, eta baso erdi bana edatera eliza [Urnietako] frenteko tabernara jo genuen. Batixta hori inguratu da eta egin dugu saioa. Egun ona tokatu zitzaidan, eta esan zutenez, paliza eman nion gainera. Kantatu omen zidan ‘ni bezala eskolan ibili bazina, jakingo zenuen nik adina’. Nik erantzun:

*Eskola ta eskola zinanian gazte beti estudiatzen hortxe jai ta aste asko pintatu(d)izunik ez zazula aste analfabeto bat gaur bada zu hainbeste“.*

Beste batean, kintoen bazkaria egin zuten Villabonako Izkina tabernan. Kinto-lagun Intxaustik puntua jarri zion eta Anatxek erantzun:

**Intxausti:**

*Idiazabalgo gaztak berdinikan ez du*

**Anatx:**

*Bera e(g)iten dutenak e(g)ingo dira poztu alimentua dula ez dezagun ahaztu nahiz ta egiten duan pitilina moztu.*

**BERTSOAK GOGOAN HARTZEKO TREBETASUNA**

“Aitak etxean bertso zaharrak kantatzen zituen. Aitari ez nizkion ikasi, amonari (Pantxika Rezola) ikasi nizkion bertso zaharrak. Oso txikitan, batzuetan Urnietara joaten ginen eta bes-tetan Hernanira, amarekin esneak eramanez bere astoarekin. Mezatik ateratzerakoan hantxe egoten zen saltzailea bere pape-rekin. Ez dakit hamar xentimo edo zer balio zuten. Kantari gehienetan aritzen zen Mendaro, luparekin. Txirritarenak baino gehiago, Xenpelarrenak saltzen zituen. ‘Xenpelarrek jarririk’ jartzen zuen eta inprenta Makazaga Errenteriakoa. Sailean sailean hartzen nituen lehen gogoan, orain jada ez”.

“Txapelketa batean Donostian, gogan hartu nituen bertso mordoxka bat, zortzi-hamar bat bai. Lagunarengana joan nintzen hurrengo egunean, eta han kantatu nituen bezperan ikasitakoak. ‘Ez ditek milimetro baten okerrik’ esan zuen hark”.

“Epele auzoan obran ari ginela, Zelaiatarrak ziren elkar hartuak, eta haietan batek esan zuen: ‘Markesaren alaba? Oraindik ez diat inor sumatu danak tajuz kantatzen dituenik’. Eta nik kantatzen nituen denak, segidan”.

**ANATXTARRAK ERE, BESTE LAROGEI URTIAN**

Bere aita Pedro aritzen omen zen bertsotan eta harengandik hartu omen zuen zaletasuna.

Pedro Joxe gaztetan aritu zen, baina soldaduska ostean lanean hasi eta andregai egin zuenean utzi zion kantatzeari. “Andregaiak ez zuen nahi, zorrerarako nuela esaten zidan eta nik ere gogo handirik ez. Hala, seko ahaztu zitzaidan

(bertsotan egiten), ahaztu. Ez zegoen ondo ikusia, mozkorra zen bertsolaria”.

Pedro Joxeren semeak, Joxe Mari Mujikak eman zion jarrapena Euskal Herriko plazetan “Anatx” izenari. Bertso eskolen lehen belaunaldikoa da Joxe Mari, Sarasuatarrak, Euzkitze, Loidi, Lizarzelaia...rekin plaza asko egindakoa. Pedro Joxek kontatu zuenez, “ez naiz gogoratzen semea behin ere entzutera joan naizenik. Nik berari kontsejurik eman? Ez, ez, eskolan zebilen eta nik zer erakutsiko nion, bada!”.

Joxe Mari Mujikaren seme-alabek, Andoni, Ane eta Maddik etxean jaso dute bertsoa eta bertso eskolan landu. Joxe Marik bai, asko kantatzen du etxean ondorengoekin, eta bertsoa txarkeriarekin ez, jolasarekin lotzen duela kontatu zuen Bertsoaren haria Hernanin liburuan: “nik derrigortu ez ditut egingo ezertan. Beti esaten diet: bertsoa jolastu, bertsoarekin sufritzera ez joan. Nire umeak inora badoaz, ondo pasatzera joan daitezela. Ez txapelketako erreferentziakin. Lagunarte bat egin, eta noranahi afaltzera joandakoa gaitasuna izan dezatela puntu bati erantzun edo bertsotan broma bat egiteko. Ez diet besterik esaten”.

**Bertsoak Anatxen alde, hileta-elizkizunean**
**Fermin Argiñarena:**

*Pameliko argi bat itzali dan hortan, gizon ixtimatua dudik ez dut hortan. Hitzun txukuna bezain politta bertsotan, izardia botia malkar ta sorotan pamelia aurrera ateratzekotan.*

**Aitor Mendiluze:**

*Joxe jardun naiz hitzak penatik banatzen ta ba al dakizu zertaz konturatu naizen: Eman dezun guztia ondo emana zen. Ez baita nor galtzen den, zer bestenganatzen, baizik zugandik zenbat dagoen Anatxen.*



# Festarako gogoz



**Urnietako Udalak  
gehigarri hau  
argitaratuz,  
jairik zoriontsuenak  
opa dizkizue  
urnietar guztiei**





# Urnietako herriari loturiko 400 istorio

**DANTZA, MUSIKA ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BITARTEZ URNIETAKO IRAGANARI BURUZKO MUNTAIA AURKEZTU ZUTEN TXANBOLIN ETA ANABASA TALDEEK EHUNKA HERRIKIDEREN AURREAN. ORDUBETEKO SAIOA, KULTURAREN BITARTEZ, URNIETARI ESKAINITAKOA.**



Ikuskizun bikaina eskaini zuen 400 istorio muntaiak, Urnietan larunbatean. Urnietaren historiaren zenbait pasarte irudikatu nahi izan zuen dantza, musika eta bideo irudiekin osatutako ordubeteko ikus-entzunezkoak, eta esan daiteke aseturik utzi zituela kiroldegia bete zuten ikusleak.

Parte hartze anitza lortu zuen ikuskizunak, Urnieta herriaren kultur bizitasuna eta emankortasuna agerian jarriaz. Ehundik gora musikari, dantzari eta antzezle, nor baino nor trebeago aritu zen bere zereginetan, eta kontuan hartzeko datua da hori, etorkizunean antzeko kultur ikuskizun gehiago emateko gai direla adierazten baitu horrek.

Anabasek, Txanbolin txistularien taldeak, Onbosko bandako musikariek eta Lourdes Iriondo musika eskolako trikitilariak ederki erakutsi zuten musikaren munduan egina daukaten ibilbidea, profesionalen pare. Egapeko haur eta gazte dantzariak ere makina bat ordu igaro dituzte entseguetan eta jendaurreko emankizunetan; eurek eman zuten ikuskizunaren pisurik handiena, eta bikain batekin gaingitu zuten erronka. Jubilatuen elkarteko dantzariak eta areto dantzetako bikoteak ere ez ziren batere makal ibili oholta gainez, dantzaren ikuspegi anitza zabalduz.

Dantzarekin eta musikarekin tartekatu,

aurreko urtetan Urnietan antzeztu izan diren hiru antzezlanen zatitxoak (Marizulo, 1936 eta Urnieta59) proiektatu ziren pantaila batean. 60ko hamarkada katramilatsua, emigrazioa, 1936ko gerra, Lasarteko zirkuituko automobilen lasterketak, gerra karlistak, Urnieta hiribilduaren sorrera XVII. mendean... Urnietaren historia bereziki markatu dituzten gertakizun ugari joan ziren bistaratzeko bata bestearen segidan.

Era horretan, historia modu askotara transmititu daitekeela erakutsi nahi izan zuen ikuskizunak; hain zuzen ere, modu horietako bat izan litekeela 400 istorio bezalako muntaia eramanez

oholtza batera, aise lortzen baita behan esertzen den ikuslearen arreta erakartzea. Helburu hori bete-betean lortu zuen ikuskizunak, eta alde horretatik, zorionak eman behar zaizkie aurreko hilabeteetan sormen eta koordinazio lanetan jardun duten pertsona eta taldeei.

Ikuskizunari alderdi ezkorrik topatzekotan, soinua beharko luke izan. Bezperan leku berean antzeztu zen Gabon Txirritarekin bezalatsu, honekin ere huts egin zuen audioak. Kiroldegia lekuri egokiena ez dela halako ikuskizun handiak eskaintzeko izan beharko du joan den asteburuko bi kultur emankizunek uzten diguten ondorioetako bat.



# “Jaiak urnietarrekin bat egiteko dira”

**PABLO DE TORRES, DONOSTIA BIHOTZEAN DARAMAN ARREN, URNIETAR PETO-PETOA DA. EKIMEN BETEKO GIZONA, FUTBOLAREN INGURUAN OSO EZAGUNA. BAINA BAITA BESTE ALOR ASKOTAN ERE.**

## Jaiak hasita daudela, zein animorekin ekingo diezu aurten?

Topera gozatu nahi dut, ondo pasatzeko gogoz nago. Gustuak adinda jarduera daudenez, denetik probatuko dut. Txupinazoan izango naiz, lagunekin eta familiarekin. Antton Jauregi handiaren ondoan egon nahi dugu, eredu diren pertsona horietakoa delako.

Ostegunean eta ostiralean lana eta jaiak uztartuko ditut. Goizez lanera, eta arrastalde-iluntzea jai giroan.

Ostiraletik igandera bitarte festan murgilduko naiz, antolakuntza lanetan ibiltzea tokatuko zaidan arren.

## Zein da jaiari buruz duzun lehen oroitzapena?

Urdenbor taldearekin, Zaldundegi ondoran, goitik behera bustita geundela. Sekulako euri jasak harrapatu gintuen orduko hartan.

## Danborrada ez duzu galduko. Zein beste jardueretan parte hartzeko asmoa duzu?

Patata tortilla lehiaketa, haurren eta helduen danborradak, txosnatako kontzertuak, Poxta Zahar desafioa, soka-dantza eta betiko gogoan izango dugun Egan taldearen emanaldia.

## Jai eremuan bertan bizi zara. Arazo al da hori? Ala tentazio handi samarra?

Jai girotik gertu bizitzea, bizitza bera arnastea da, herriak jaiak gozatu nahi duela ikustea.

Bestalde, egia da, tentazio handi samarra da. Gertutasunak azken unera arte aprobetxatzeko aukera ematen duelako.

## Urnietako jaiak zer dira zuretzat?

Egitarauko ekialdien inguruan biltzen gara etxeok, lagunak eta ezagunak. Urnietarrekin bat egiteko aukera bakarrenetakoa dira, urte osoa zehar.

## Eta futbola zer da zuretzat? Zer egingo zenuke futbolic gabe?

Futbola niretzat bilgune modukoa da, heziketan sakontzeko modu aproposa. Bizi estilo batean bizitzeko eta transmititzeko modua da. Elkar lotzen gaitu teknikariak, jokariak, epaileak, zuzendaritza taldeko kideak. Futbolic gabe antzeko jarduerak fisikoak egingo nituzke, hala nola, mendi irteerak, kanpaldiak..., beti ere taldean. Gizarteak eta batez ere gazteek kirol eskaintza zabalaren premia dute, bilgune sanoak diren heinean.

Lanak, ikasketak, lagunak, lehiak dakartzan pozak eta tristurak..., futbola orekari eusteko giltzarrietako bat da.

## Gaztetan zeintzuk ziren zure idoloak?

Atotxaren urrezko aro hura bizi izan nuen. Bi ordu eta erdi lehenago joaten ginen toki egokiaren bila, eta oso gogoan dut Atotxako futbol zelaiaren usaina.



Pablo de Torres asteartean Egapedanbor taldearen entsegu orokorrean.

Arconada zen nire idoloa, Genaro Zelaieta ahaztu gabe. Bere postu berean jokatzen nuelako, hegaleko defentsa gogor horietakoa.

## Denboraldi hasierako aurkezpenak egiten UKEren parekorik ez dago...

Jokariak dira klubaren altxor nagusia, niretzat jokari bakoitza lehen mailakoaren parekoa da, benjaminetan hasten denetik preferente mailarainokoa. Eta eurak direnez protagonista, herritarren eta hedabideen aurrean aurkezten ditugu.

Jokari bakoitza bere taldearekin aurkezten dugu, ospakizun modukoa eginez.

## Badira futbol zelaietan jokariak baino jarrera okerragoa duten gurasoak...

Halaxe da, eta gustagarria ez bada ere, teknikariok horrelako egoeren aurrean erantzuten asmatu behar dugu. Guraso horri bere jokabidea ez dela zuzena adierazi behar diogu. Jokari onak eta pertsona hobeak nahi ditugu, baina horretarako ingurua egokia izan behar da. Hots,



Pablo de Torres 2008ko irailan, denboraldi hartako aurkezpen ekitaldian.

**“Gipuzkoatik esportatuko nukeena konpromisoak betetzeko dugun seriotasuna da”**

gurasoak, teknikariak, direktiboak, epaileak, talde ordezkariak...

## UKEtik kanpo zaude orain, zergatik?

Familia, lana eta aisialdia uztartu behar ditut. 36 urtez jarraian ibili naiz futbole- ra lotuta, 30 urtez jarraian prestatzaile lanetan eta taldeak edota jokariak zuzentzen. Horietatik azken 17 urteak Urnietan. Biziberritzea onerako da, niretzat eta baita UKErentzat ere.

## Zure lanbideagatik kanpora irten behar izaten duzu. Harritu zaituen lekuren bat nabarmenduko al zenuke?

Toki asko, bakoitza bere bereizgarriekin. Baina azkenaldian ez nabil hainbeste kanpoan eta zaila egiten zait tokiren bat nabarmentzea.

## Eta aukeran zer esportatuko zenuke hemen-dik? Eta kanpotik zer inportatuko zenuke?

Nire lurraz erabat maitemindurik nago, kanpoko jendearekin hitz egitean ezinbestean aipatzen diet hainbeste maite dudan Donostia.

Gipuzkoatik esportatuko nukeena konpromisoak betetzeko dugun seriotasuna da. Kanpotik zerbait txertatzeko- tan, lurralde nordikoen eskola sistema aukeratu nuke. Hango haurrek ez dute porrota ezagutzen, talde lanean trebatzen dituzte. Irakasleak ere independente samar aritzen dira. Helduak, aldiz, euren lan bizitzan formakuntzan trebatzen dira, langabezia %3an dago...

## Futbolaz gain, zer duzu gogoko?

Mendia, irakurketa –liburu arraroak, nire emazteak dioen bezala–, padelean aritzea eta nola ez familiarekin eta lagunekin gozatzea.

## Zein edari duzu gogokoen? Eta janaria?

Garagardo hotza gogoko dut, beti ere lagunek edo familiaz lagunduta. Nire amaginarrebaren kroketa oso gogoko ditut, baina normalean janariarekin oso erraz konformatzen naiz.

## Urnietan ez balitz, non biziko zinateke?

Galderarik errazena da niretzat: Donostian. Denbora edukiko bagenu Donostiaz hitz egingo nizuke. Nolanahi ere, kanpoko bati Gipuzkoa osoan zehar bisitaldiak egitea aholkatuko nioke. Ez dila Donostiara mugatu.

## Elkarrizketa hau nori egingo zenuke?

Antton Jauregiri.



# 'Gabon Txirrita' Xabier Leteren herrian

**OSTIRAL GAUEAN URNIETAKO KIROLDEGIAN ESKAINI ZUTEN XABIER LETEK IDATZITAKO GABON TXIRRITA ANTZEZLANAREN BIGARREN EMANALDIA. SARRERA GUZTIAK AGORTUTA, ITXURA BIKAINA ESKAINTZEN ZUEN ANTZOKI BIHURTUTAKO KIROLDEGIAK.**

Herritar ugarik eta kanpotik etorritako hainbat jendeke bete zituen kiroldegiko harmailak eta okasiorako jarritako aulki guztiak, Txirritari egindako epaiketa bertatik bertara bizitzeko. Donostiako emanaldiaren eskarmentuaren ondoren, aktoreak, etxekoan aurrean antzezteko gogoz zeuden. Orduko presiorik gabe. Bezperako eta arratsaldeko entsaioetan dena lotuta utzia zuten, eta lehen emanaldian izandako arazo teknikorik errepikatuko ez zela jakitun ziren.

Hasiera beretik, emanaldia bikain hasi zen, eta energia positibo hori aktore zein musikari guztiari kutsatzen joan zitzaizen, emaitza borobila lortuz. Publikoari dagokionez, Urnietakoari, Donostiakoarekin alderatuta esan liteke irri egitea gehiago kosta zitzaioela, nahiz eta obra aurrera joan ahala kiroldegiko harmailetan geroz eta irribarre eta algara gehiago sumatzen zen. Bukeraren, txaloen unean ere, urnietarrak donostiarrak baino hotzago agertu ziren, Donostian txalo zaparrada luzea eskaini zieten denak zutik jarrita, Urnietako emanaldian ez ziren zutitu eta txaloak eskaintzeko orduan ere apalagoak izan ziren.

## IKUSKIZUNAREN HIRUGARREN SAIORAKO ATEAK ZABALIK

Ikuskizuna amaituta, Mikel Laskurain eta Miren Gojenola zuzendariak pozik agertu ziren ordura arte egindako lanarekin. Gauerdia pasata, antzezlanean parte hartutako aktore, musikari, dantzari,... denak elkartu ziren kiroldegiko tabernan zizka-mizka batzuk dastatuz, euren inpresioak elkartrukatzeko.

Antzezlanean hirugarren emanaldi bat eskaintzeko gogo bizia nabaritzen zen parte hartzaile guztien artean, eta azken orduko berrien arabera, badirudi hirugarren emanaldia eskaintzeko behintzat atek zabal litezkeela. Emanaldi hori Ereñotzun izango litzateke, azaroan. Baina, oraindik goizegi da baieztatzeko.





*Elkarrizketak, hemeroteka,  
antzezlanean garapena...*

Eduki gehiago  
**www.aiurri.eus** webgunean  
**komunitatea** atalean  
*aiurri.eus/komunitatea/gabontxirrita*





andoaINDARRA  
euskaraz  
eguna

Irailak 24  
ANDOAIN  
GOIKOPLAZA



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA  
**Aiurri**

ANDOAIN | Gehigarri berezia, 2016ko urria



ANDOAINGO  
UDALA  
Euskararen  
Normalizaziorako  
Lansaila



AIURRI



andoaINDARRA  
euskaraz  
eguna

Irailaren 24ko  
ospakizuna  
gogoan

- aiurri.eus < Gure gaiak < AndoaIndarra euskaraz
- #AndoaIndarraeuskaraz



**“Sagardoaren garapena handia izan da. Bi kontsumitzaile mota daude; batzuk garai batekoa nahiago dute, eta beste batzuk gaur egun ekoizten dena”**

IRATI AMONDARAIN



**Sagardo kata egin berritan, zer nolako esperientzia izan da?**

Oso ondo joan dela iruditzen zait, iza- era herrikoia duten dastaketa hauetan jendeak oinarriko ikasgai batzuk hartu nahi izaten ditu eta partaideak kontent geratu direla uste dut.

**Ohikoan, adituekin gehiago aritzen zara...**

Halaxe da, egia esan azalpen tekniko-agoak ematera ohituta nago.

**Pasioa al da zurea? Ogibidea ere?**

Bietatik du, bai. 16-17 urterekin oso argi nuen enologia ikasketak egin nahi nituela. Mundu honetan lan egin nahi nuela argi nuen. Zorionez, nire asmo horiek betetzea lortu dut.

**Ardoaren kulturara bideratu zara gehiago...**

Hainbat sagardogilerekin harremana dugun arren, nire enpresarekin Espainia eta Portugal aldean gabiltza asko.



2016ko iraila

# Jaia egitearen aldeko adostasun zabala



**“Familia osoa etorri gara Goikoplazara. Euskaldunak garelako eta Andoain herri euskaldun batean sinesten dugulako”**

## Raquel Lopez

Andoainen Euskararen Eguna antolatuz denez ez dugu bi alditan pentsatu, eta familia osoa etorri gara Goikoplazara. Euskaldunak garelako eta Andoain euskaldun batean sinesten dugulako.

Etxean egindako patata tortillarekin azaldu gara festara, etxeko umeei ilusioa egiten zielako txapelketan parte hartzea. Gurea ez dute nabarmendu, baina nik uste behar bezala probatu ez dutelako (barreak).

Ez geneukan plan berezik pentsatuta egunerako, baina tortilla pintxoak eta marmitakoa probatu ditugu, eta bertan bazkaritan geratzea erabaki dugu. Oso giro jatorrean gaude, itzalpean eserita eta dingoarekin, bi antzerkigile horiek jartzen ari diren umore ederraz gozatzuz.



**“Beharrezko ikusten dut horrelako jaia antolatzea, jende berria ezagutzeko eta festak anaitasun giroan ospatzeko aukera sortzen delako”**

## Willy Alcala

Santa Krutz elkarteak udaleko euskara zerbitzuetik hots egin eta egunaren ideia planteatu zigutenean, ez genuen zalantzarik eduki. Herriko beste elkarteetara ere zabaldu zen asmoa, eta azkenean elkarte dexente bildu gara marmitakoa prestatzeko gogoz. Gainera, mina hartuta dagoen eskubaloiko mutilari bideratuko zaio marmitakoarekin ateratzen den dirua, eta horrek ere izugarri poztu gaitu.

Horrelako jaiak beharrezkoak ikusten ditut nik. Iruditzen zait Andoainen herritarrek gogoko dituztela horrelako egunak, jende berria ezagutzeko eta festak anaitasun giroan ospatzeko. Ni pinturako komertziala naiz ogibidez, eta Gipuzkoan zehar ibiltzea egokitzen zait; bada, konturatzen naiz, herri txikietan adibidez, bertakoak beti egoten direla prest herriaren alde edozein ekarpen egiteko; eta andoaindarroi, espiritu horretatik zerbait falta zaigula esango nuke. Izan ere, Andoainen, ia beti, antzeko jendea animatzen da lan egitera.



**“Beharrezko ditugu horrelako egunak, euskara poliki-poliki ikasten ari garenontzat batez ere. Ondo dago euskararen egunak gu guztiok elkartzea”**

## Lurdes Martin

Festa polita ari gara ospatzen. Beharrezko ditugu, euskara poliki-poliki ikasten ari garenontzat batez ere. Seme-alabekin, ikastetxeko gurasoekin, bizilagunekin... saiatzen ari gara egunez egun euskara praktikatzen, eta ondo dago euskararen egunak gu guztiok elkartzea.

Lagun koadrila polita bildu gara bazkarian; lagun gehiago ziren etortzekoak, baina asteburuetan ohikoak diren konpromisoak egokitu zaizkie, eta ezin izan dute agertu. Egia esanda, bazkari polita galdu dute; bi elkarteek egindako marmitakoa dastatzen aritu gara, eta zein baino zein goxoagoa zegoen! Tertulian ari ginela jakin dugu gaurko bazkari honen biltzen den dirua istripua eduki zuen eskubaloiko gazte bati emango zaiola, eta esango nuke antzeko elkartasun keinuekin are gehiago irabazten dutela jai bereziek. Arratsaldean ere Goikoplaza inguruan ibiliko gara; alabak (Maidar) Katramila taldearekin antzerki emaldia dauka, eta nola ez geratu bertan!



**“Nahi baino gutxiagotan egiten dugu euskaraz; eguna ondo datorkigu leku guztietan euskaraz mintzatu beharko genukeela aldarrikatzeko”**

## Andoni Arribillaga

Euskaldunak garelako eta euskaraz bizi nahi dugulako etorri gara Goiplazara adiskide koadrila. Bizi garen inguruan bizi gara, eta nahi baino gutxiagotan egiten dugu euskaraz, baina leku guztietan euskaraz mintzatu beharko genukeela aldarrikatzeko ondo datorkigu eguna.

Arratsaldean ez dakit zenbat jende bilduko garen, baina eguerdi parteko panorama ikusita, pena pixka bat badut nahi genukeena baino jende kopuru gutxiago erakarri duelako jaiak. Andoaindarrok nahiko hotzak gara parte hartze kontuetan, baina Aiurrik ematen didan aukera probestuz, antolatzaileak zoriondu egin nahi nituzke, gaurkoan erakusten ari diren ahaleginagatik. Hurrengo urteetan bide beretik jarrai dezaten animatzen ditut. Iruditzen zait eguna errotzen joango dela herrian eta herritarrengan; ez daukat zalantzarik aurreko asteetan kontzientiazio kanpainak eginez, urtez urte, jende gero eta gehiago batuko dela jaira.





ANDOAIN | Gehigarri berezia

**Irailak 24**  
**ANDOAIN**  
**GOIKOPLAZA**

# Diana, haur jolasak eta bazkari herrikoia





**“Gaurkoa giro ederrean doala ikusten ari naiz. Euskara aldarrikatzeko modu ona iruditzen zait. Erronka biharamunean dago”.**

ANA MARI ARANBURU



**Zorionak Ana Mari, ezustean jaso al duzu lehen saria?**

Bai. Tortilla egiterakoan ilusioz nengoen, eta lankide batekin ea nork irabazi txantxetan ibili gara. Eta azkenean neronek lortu dut saria.

**Tortilla asko aurkeztu dira, 30 inguru...**

Nirea askoren artean bat gehiago zela pentsatu dut. Tonbolan lanean nengoela, sari banaketa ekitaldira gerturatu naiz.

**Osagai berezirik bota al diozu?**

Patata eta tipulaz gain, piper berdea ere bota diot. Gatza tamainan, eta patatari bakarrik.

**Askotan egitearen poderioz, patata tortilla-rekin trebezia berezia al duzu?**

Ez pentsa. Ez dut askotan egiten, baina egia da lagunarteko bilkuretarako egiteko ohitura badudala. Patata tortilla eta sagardoa osagai aproposak dira.



2016ko iraila

# Marmitakoa elkarte gastronomikoen eskutik



**HOGAR EXTREMEÑO: PEDRO MATEOS, ANTONIO GONZALEZ, FRANCISCO RODRIGUEZ, JESUS ARNAIZ, IGNACIO GOMEZ, MARCELO TENA, JAVIER GARCIA.**



**ONTZA ELKARTEA: PEPE IPARRAGIRRE, LUISI ROIG, IOSU ARABAOLAZA, IÑIGO APALATEGI.**



**BATZOKIA ELKARTEA: JOSE LUIS GUEDEJO, M. JOSE IZAGIRRE, MIKEL ARREGI, IÑAKI IRULEGI, ANTONIO GUEDEJO. HAIEKIN BATERA ALBERTO SANTA KRUZ.**



**IRUNBERRI ELKARTEA: MIKEL TELLETXEA, MAILU ARRUTI, JOXERRA KARRERA.**



**ZUMEATARRA ELKARTEA: IGOR ZALAKAIN, PATXI DIEGUEZ, JOSE MARI LARRAZ, JON PEREZ, JON ETXEBERRIA, JOSE ANTONIO ITURRIOZ.**



**PEÑA SANTA KRUTZ ELKARTEA: KLAUDIO REZOLA, ANTONIO GOIA, XEBAS GOIA, WILLY ALCALA, AIMAR ALKAIN, AITOR RODRIGUE, JON FERNANDEZ. HAIEKIN BATERA LUIS ARCE.**





ANDOAIN | Gehigarri berezia

**Irailak 24**  
**ANDOAIN**  
**GOIKOPLAZA**



KOTOI ELKARTEA: AINHOA MORENO, HIART HERNANDEZ, JON JAUREGI, MIKEL PEREZ-LASA, DAVID SANTANO.



OLAGAIN JUBILATU ELKARTEA: JOSE LUIS CREGO, ELOY ARTOLAZABAL, SANTOS CASTRO, PEDRO GRACIA.

# Ikusmin handia patata tortilla lehiaketan



PATATA TORTILA TXAPELKETAKO HIRU ONENAK.



IRABAZLEA ZEIN IZAN ZEN JAKITEKO IKUSMIN HANDIA PIZTU ZEN.

## Pintxo potea



ANAIAK TABERNAKO SHEILA GUIRADO.



ATERPE TABERNAKO MAITE RAMOS.



OLLOKI TABERNAKO MARIAN MARIA.



ELIZONDO TABERNAKO RAMON ELIZONDO.



**“Gaizki dantzaten dugun ustea dugu, baina ez da horrela. Gaurkoa bezalako saioak lotsa alde batera utzi eta plazara ateratzeko egokiak dira”.**

JON IRAOLA



**Eromeria amaitu berri da, parte hartzailea izan da oso. Pozik zaude?**

Bai, oso. Lehen aldia da zuzeneko musikarik gabe egiten dudala, eta uste baino hobeto joan da. Haurrek oso ondo erantzun dute, eta haien atzetik gurasok.

**Idea polita arratsaldea girotzeko...**

Dantza egitearena euskaldunok ba-

rruan daramagu, ateratzea kosta egiten bazaigu ere. Gaizki dantzaten dugun ustea dugu, baina ez da horrela. Gaurkoa bezalako saioak lotsa alde batera utzi eta plazara ateratzeko egokiak dira.

**Egunari buruzko zein iritzi duzu?**

Beharrezkoa da. Jabetu behar dugu euskara bizitzeko aukera bat dela.

2016ko iraila



# Plazara, euskara, plazara... geure herriaren geroa baikara





**“Ekiten,  
laguntza ematen  
jarraitu beharko dugu  
euskararen erabilera jarrera  
kontua bilakatu arte”.**

JON ANDER UBEDA



Euskara Andoainen. Ekitea, laguntza ematea da. Mikrofonoa hartu eta Goikoplazan euskaraz aritzea da. Koadrilan eltzek hartu eta marmitakoa egiten hastea da. Euskara Andoainen Axerien blusa jantzi eta kalera irtetea, Kontzejupean pilota partidak antolatzea, etxeko sukaldean alabari hitz emandako tortilla goxoa egitea,... Euskara Andoainen borondate kontua da.

Gaurko egunez, eskuzabal jokatzeko dozenaka lagun gauza da. Soluzio majikorik ez dugunez, borondatea lepoan hartu eta segi aurrera: Ekiten, laguntza ematen jarraitu beharko dugu euskararen erabilera jarrera kontua bilakatu arte. “Euskaraz bizi nahi dugu” aldarrikapen horretatik “Euskaraz bizi gara” baieztatzerira iritsi arte.

Bitartean zer egin? Ekin, eta eragin.

ANDOAIN | Gehigarri berezia

**Irailak 24**  
**ANDOAIN**  
**GOIKOPLAZA**







### AINARA RODRIGUEZ • ZINEGOTZIA Antolatzaile modura zein sentsazio duzu?

Sentsazioak oso gozoak dira: egun borobila izan zen, partaidetza handia egon zen, giro paregabea... Goi-koplazara gerturatu ziren andoaindar guztiekin oso eskertuta gaude.

### Gizarte eragileen inplikazioa nabarmentzekoa izan zen. Poztekoa da hori...

Funtsezkoa izan da, eta hortxe dago arrakastaren gakoetakoak. Horrela ulertzen dugu herrigintza: “Andoain guztion artean”. Hain zuzen ere, horixe da gure lelo nagusia.

### Zein iritzi jaso duzue haien aldetik?

Lehen balorazio guztiak onak izan dira, egia esan. Epe erdira, azterketa sakonagoa egitea da gure asmoa.

### Euskararekiko borondatea egon badago, euskararen aldeko jarrera aktiboa sustatzea izango al da hurrengo erronka?

Erronka nagusia horixe da; horregatik sustatzen ditugu udaletik hainbat ekimen: kirol elkarteekin euskara sustatzeko hitzarmenak, Mintzalaguna edo Gurasolaguna egitasmoak,... Gure nahia euskararen normalizazioa Andoaingo kaleetara heltzea da.



2016ko iraila

# Larramendi antzerki taldearen garaia gogoan

Frankismoan Andoainen egin zen euskal antzerkia izan zuten hizpide orduko hainbat antzezlek, Basteron. Mahai-inguru polita osatu zuten **Larramendi taldearen** ibilbidea, bizipenak eta pasadizoak kontatuz, **Ainhoa Aiertza** gai jartzaile izan zutelarik.

Itziar Arin, Sabino Uranga, Koldo Albisua, Begoña Arregi, Joxe Mari Uranga, Mari Karmen Zuaznabar, Pilar Rodriguez eta Jose Joakin Jauregi kideak hurbildu ziren, Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Santa Krutz jubilatuaren elkarteak antolatutako hitzordura.

60ko hamarkadan zehar osatu eta ibilbide oparoa egin zuen Larramendi antzerki taldeak. Sorburua Begoña Arregik azaldu zuen: “Batetik, euskal kultura bultzatu eta suspertu nahi zen, baina bestetik, orduantxe abian jarrita zegoen ikastolarentzat dirua biltzeko modutzat ikusi zen”.

Frankismoko testuinguru historiko iluna gogoratu zuen Itziar Arinek, “euskararen gainbehera zegoen. Frankismoak euskara eta euskal kultura zapalduta zeukan, eta gaztelania nagusi zen kalean. Euskaldun asko ere, geure lagun koadrila esate baterako, gaztelaniaz mintzatzen ginen harik eta 18 bat urterekin ezin zela horrela jarraitu erabaki genuen arte”.

Pilar Rodrigezen arabera, “giroa erdararen aldekoa bihurtua zegoen, eta gazteok, etxean, euskaraz egiten ziguten gurasoei ere maiz gaztelaniaz erantzuten genien. Uste genuen erdaraz egin beharra zegoela zer edo zer izateko; euskaraz eginez gero, kasik-kasik *kaxeroak* eta arloteak izango ginelakoan. Pentsa nolako mentalitatea zegoen orduan!”.

Mari Karmen Zuaznabarrek Arinek esandakoa berretsi zuen: “Guk ere koadrilan erdaraz hitz egiten genuen, eta antzerkiak lortu zuten, besteak beste, herriko zenbait euskaltzale biltzea eta baita geure artean euskaraz mintzatzen hastea ere”.

**ARRAKASTA ITZELA IPARRAGIRRE ZINEMAN**  
Antzezlanak bi saiotan egiten zituzten. Xabino Urangak dionez, arrakasta itzela eduki ohi zuten: “Zinea asteburuetan ematen zenez, astean zehar egin behar izaten genituen antzeppenak, eta hala ere, antzokia lepo betetzen zen. Andoaingo jendea Euskarazko antzerkia ikusteko gose zen”. Denbora-pasaren balioa azpimarratu zuen Itziar Arinek, “nahiko bizimodu iluna bizi zuten jendeak frankismoan alde guztietatik begi-



GOIAN: JOXE JOAKIN JAUREGI, KOLDO ALBISUA, XABINO URANGA ETA JOXE MARI URANGA.  
BEHEAN: MARI KARMEN ZUAZNABAR, ITZIAR ARIN, PILAR RODRIGEZ ETA BEGOÑA ARREGI.

**Iparragirre aretoan asteburuero zinema eskaintzen zutenek, antzeppenak astean zehar izaten ziren. Eta hala ere jendez betetzen zen. Euskarazko antzerkia ikusteko gosea zegoen”**

XABINO URANGA

ratuta, eta barre egiteko izugarriko premia eta gogoa zeukan”. Lehenagotik irekitako bideak zapaldu zituzten, orduko gazte haiek: “Gure aldean zaharragoak ziren **Sekundino Etxeberria, Joxe Eizmendi** eta beste zenbaitek jada gerra aurretik ibili ziren euskal antzerkian, eta herrian tradizioa errotuta zuten;

ikusle asko, gu ikustera baino garai hartako obrak eta Sekundino bera ikustera etortzen ziren”.

Antzerki eskolarik ez zegoen orduan, “Teknikarik ez genuen, Sekundinok egiten zuten zuzendaritza artistikoa, okerrak-eta zuzenduz. Erabat ausartak ginen”, Begoña Arregiren ustez.

### GARAI HARTAKO PASADIZO UGARI

Bitxikeria eta pasadizo ugari kontatu zuten mahai ingurua osatu zuten zortzikoteak. Joxe Eizmendi sakristaua protagonistak duenak eragin zituen barrerik handienak entzuleen artean. Nonbait, antzezleri bikaina zen, zaildua bat-batekoan, eta ez zituen gidioak ikasten; burura zetorkion lehenbiziko gauza botatzen zuten oholtzan. Jakina, orduantxe berarekin hizketan ari zena jokoz kanpo uzten zuten!

**“Koadrilan erdaraz hitz egiten genuen, eta antzerkiak lortu zuten herriko zenbait euskaltzale biltzea, eta baita geure artean euskaraz mintzatzen hastea ere”**

MARI KARMEN ZUAZNABAR

Basterora hurbildu zirenek oso tarte atsegina igaro zuten. Entzuleei galderak egiteko aukera ematean, ikusle batek aitortu zien umetan oso gustura joaten zela Iparragirre antzokiko emanaldietara. Beste entzule batek, mahai-inguruko kideak berriz ere antzerkia egitera gonbidatu zituen. Hortxe dago erronka.



# Sanmielak 2016, jai egitaraua



## Irailak 29, osteguna San Miquel eguna

- 09:30 Diana, Txanbolin.
- 10:45 Udal korporazioa udaletxetik elizara.
- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Udalaren omenaldia Egape ikastolari bere 50. urteurrenean.
- 12:30 Txanbolin bandaren musika eta dantza emanaldia ikastetxeetako ikasleekin plazan.
- 14:00 Adinekoen bazkaria Oianumen.
- 17:00 Haurren karaokea txosnagunean. Koadrila arteko futbito txapelketaren finalak Egape ikastolan.
- 18:30 Martin Mujika XXII. Pilota jaialdia. Erremontean: Ansa-Zaldia // Goioetxea-Zubiri. Esku-pilota afizionatuak: Santxo-Gorrotxategi eta Ojuel-Erasun.
- 18:30 Erromeria plazan: Fan & Go. Gangster gaua iragarrita dago txosnagunean.
- 20:30 Tortilla lehiaketa txosnagunean.

## Irailak 30, ostirala Haurren eguna

- 09:30 Diana, Txanbolin banda.
- 10:30 Alkate Txikien izendapena: Alain Ugarte Beristain eta Paula Segurado Erasun.
- 11:00 Haur eta gazte parkea Egape ikastolako jolastokian.
- 11:30 Kontzejupeko eskupilota txapelketaren finalak.
- 16:30 Haur eta gazte parkea Egape ikastolako jolastokian. Puzgarriak eta jolas-aparatuak.
- 18:00 Poxta Zahar desafioa Idiazabal kalean.
- 17:00 "Zoozom" Markeliñeren famila ikuskizuna plazan.
- 18:15 Erraldoi eta buruhandien kalejira.
- 19:00 Diskofesta plazan: DJ Jon Urbietta.
- 20:00 Alkate Txikien botere uztea udaletxean.

- 21:00 Oilasko-afaria txosnagunean.
- 23:00 Diskofesta plazan: DJ Urbietta.
- 23:30 Kontzertuak txosnagunean: Kale-ara, Las Tea Party DJ's.

## Urriak 1, larunbata Koadrilaren eguna

- 09:30 Diana, Txanbolin banda.
- 09:30 Probintzia mailako bolo txapelketa. Haurren Kontzejupeko txapelketaren finalak.
- 12:00 Apar festa plazan, eguraldi onarekin.
- 12:00 Sardina jatea Plazido Muxika plazan.
- 12:00 Koadrilaren txarangaren lehen irteera plazatik.
- 12:30 Trikipoteoa herrian zehar.
- 12:30 Ardo eta paella dastaketa plazan.
- 14:00 Emakume koadrilaren bazkaria kiroldegiko tabernan.
- 14:30 Bazkari herrikoa txosnagunean. Txartelak erosteko azken egunak, Kantoin eta Bikain kafetegian.
- 16:00 Urnietako III. Txirindularitza kriteriuma Idiazabal kalean.
- 16:30 Haurrentzako Gynkhana Plazido Muxika plazan.
- 17:00 Artisau azoka plazan. Heldu eta haurrentzako jolasak.
- 17:00 Poxta Zahar karaokea txosnagunean.
- 17:00 Koadrilaren txarangaren bigarren irteera.
- 17:30 Astokillo Zirkus haur ikuskizuna plazan.
- 18:00 Iribarren orkestra Plazido Muxika plazan.
- 18:30 Elektrotzaranga kamioia Idiazabal kalean zehar.
- 19:00 Urdanborren irteera Plazido Muxikatik.
- 19:00 Dantza ikuskizuna Saroben Aurrera Gure Ametsa eta Baxenafarroako Bithindarrak elkarteek eskainia.
- 19:00 Errenazimendu garaiko kontradantzen erakustaldia.
- 19:15 Elizan Urdanborren saioa.
- 20:00 Musika plazan, Custom.
- 23:30 Urdanbor, bigarren irteera Idiazabal kaletik.
- 23:30 Kontzertuak txosnagunean: Eguerra ta kitto, En Tol Sarmiento, Bad Sound Sistem.

## Urriak 2, igandea Baserritarren eguna

- 10:00 Kalejira Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria, Astigarraga eta Hernaniko txistulariekin.
- 10:30 Perurrekin gobernuz kanpoko erakundeak txorizo eta sagardo postua jarriko du San Joan plazan.
- 11:00 Haur danborradaren hasiera.
- 11:00 Meza Nagusia eta ebangelioen irakurketa Mikel Goiaingeruaren elizan Errosarioko amaren eguna ospatuz.
- 12:00 Egapedanbor eta Presentación de Maria haur danborradaren elkargunea San Joan plazan.
- 12:30 Plazido Muxika plazan.
- 12:30 Ingurutxo eta XV. Jalgi Plazara jaialdia Aurrera Gure Ametsa eta Bithindarrak elkarteek eskainia San Joan plazan.
- 12:30 Errenazimendu garaiko kontradantzen erakustaldia.
- 12:30 Toka txapelketa plazan.
- 14:30 Bazkari herrikoa txosnagunean.
- 16:30 Bertso emanaldia: Nerea Elustondo, Uxue Alberdi, Unai Muñoa, Ander Lizarralde eta Miren Amuriza. Ondoren, Jokin Lizeagari Urnietar Prestu 2016 izendapena.
- 17:30 Zaldi proba probalekuan.
- 17:30 Trikitilariak kaleetan zehar.
- 18:00 Txekor jate solidarioa eta sagardo dastaketa plazan, Pausokaren alde.
- 18:00 Dantzaldia Egan taldearekin.
- 18:30 Arratsalde akustikoa txosnagunean: Galtzertien poligamia, Bi zaldi, Peputz, Physis.
- 18:30 Willy Etxeberria memoriale, zesta punta jaialdia pilotalekuan: Lertxundi-Andonegi eta Goixerri - Manzisidor.
- 19:00 Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa plazan.
- 20:30 Dantza-Soka herrikoa, Egapek antolatuta plazan.
- 21:00 Mielari agurra.
- 21:15 Zezen suzkoak.
- 21:25 Azken traka erretzea eta erromeriaren jarraipena. Jai amaiera.

[EGITARAUA, EGUNEZ EGUN: AIURRI.EUS]

## EZ beti da EZ! Sanmieletan gozatu errespetuz

### NOLA JOKATU?

- Jarrera/eraso matxistaren bat gertatuz gero, gelditzeko esan egiten ari den pertsonari.
- Erasoa/jarrera jasan duen pertsonarengana hurbildu eta laguntza behar duen galdetu eta bere erantzuna errespetatu.
- Inoiz ez utzi bakarrik, bere konfiantzako norbait etorri bitartean konpainia egin.

### NORA DEITU ERASO BATEN AURREAN?

- **Udaltzaingoa:** 092// 943 00 80 90 (24 ordu)
- **Gizarte Zerbitzuak:** 943 008 000 (7:30etatik 15:00etara)
- **Ertzaintza:** 112
- **Eusko Jaurlaritzaren 24 ordu zerbitzua:** 900 840 111

### NORA JO BEHAR DUT ERASO BATEN ONDOREN

- **Herriko Osasun Etxea:** 943 006 680 Etxeberri plaza 9-11
- **Larrialdiak:** 112



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



# Egapedanbor, zortzigarrenez jaietan

**GURASO TALDE BATEN EKIMENEZ SORTU ZUTEN, JAIETAN PARTE HARTZE ZUZENA IZATEKO ILUSIOAREKIN**



Egapedanbor taldeko hainbat kide astearteko entsegu orokorrean.

Egapedanbor haur eta gaztetxoan danborrada jaietarako prest dago. Horixe ikusi ahal izan zen astearte arratsaldeko entseguan. Lehen piezatik hasita, bikain aritu ziren danborra edota kupela joz. Ezin ahaztu dantzariak ere, danborrada honetako elementu gehigarria baitira.

Zortzi urte atzera, guraso talde batek martxan jarri zuen, jaietan parte hartze zuzena izateko ilusio osoarekin. Ildo bereetik darraite eta danborrada kalez kale ibiltzeko gurasoan laguntza ezinbestekoa da. Sortu zirenetik, danborradatan ohiko den jantzi militarra alde batera utzi zuten, jaiari lotutako jantziengatik ordezkatur.

Urriaren 2an, igande honetan, danborrada gaztea goizeko 11:00tan irten go da Egape ikastolatik, eta handik Plaza Etxeberrira. Bertan egingo dute lehen saioa. Ordubete geroago, San Juan plazan Presentacion de Maria ikastetxeko danborradarekin bat egingo dute, guztiek elkarrekin Donostiako Martxa eta Urnietako ereserkia interpretatzeko. Saio bera elkarrekin errepikatuko dute geroago, baina hori Plazido Muxikan izango da. Arantzubi, Dendaldegi eta Zubitxo plaza zeharkatu eta gero Pintore kaletik ikastolara iritsiko dira.

# Bertso afaria

**OIANUME SAGARDOTEGIAN DEITUTAKO HITZORDURA BERREHUN LAGUN HURBILDU ZEN. SAIO BIKAINA ESKAINI ZUTEN.**

Joan zen larunbatean Sanmielen atariko bertso afaria egin zuten Oianume sagardotegian. Afaria erabat errotuta dago herriko euskaltzaleen artean eta aurtan ere 200 pertsona elkartu ziren sagardotegiko mahaien bueltan, afariaz eta bertsoez gozatu asmoz.

Oskar Estanga nafarra eta Oihana Iguaran amasarra arduratu ziren afalosteko giroa alaitzeaz, eta ezin hobetu asmatu zuten eginkizun horretan. Goizaldeko ordubiak aldera emanaldia amaitu zen arte ez baitzen inor jangelako eserlekuetatik mugitu. Gitarraz lagunduta eta doinu ezagunez baliaturik, ondo baino hobeto asmatu zuten entzuleengana iristen.



Festarako gogoz zegoen jendea, eta jaiak Oinume diskotekan jarraitu zuten goizaldera arte.

# 300 euro irrintzi onenarentzat

**SARI POTOLOA ESKAINIKO DIO IÑISTORRA ELKARTEAK IRRINTZI TXAPELKETAKO IRABAZLEARI.**

Zortzigarrenez antolatuko da Sanmielatan Maria Arizmendi Irrintzi Lehiaketa. Urriaren 2an, igandearrekin izango da, arratseko zazpitan San Juan plazan. Urnietako Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak antolatuta, lehiaketa parte hartu nahi duen ororentzat zabalik dago eta bi mailatan banatuko da: atal nagusia edo helduena, 14 urtez gorakoentzat eta gaztetxoena atala, 14 urtez beherakoentzat.

Antolatzaileek Euskal Herrian berrera irrintzi egiteko ohitura eta gaitasuna duten herritarrek erakarri nahi dituzte Urnietako saiora, herriko jaietan eta hamaika kultura eta folklore ospakizunetan irrintzia botatzeko ohitura eta iaotasuna duten herritar horiek, hain zuzen ere. Horretarako, lehiaketa irabazten dutenentzako sariak gain, bidaia-saria ere aurreikusi dute, Urnietara kanpotik datozen irrintzilariarentzat.

Irabazleak garaikurra eta 300 euroko saria izango du. Bigarrenak, garaikurra eta 100 euroko saria. Urnietaren irrintzirik txukunenak ere jasoko du bere saria, garaikurra eta 50 euro-

koa. Sari hauek guztiak helduen atalean. Haurren atalean, berriz, garaikurrekin batera sari ekonomiko apalagoa jasoko dute. Sariak erabakiko dituen epaimahaia lau lagunek osatuko dute eta, besteak beste, indarra eta ozentasuna, abiadura, tonua, garapena eta kolpe bakarrek irrintzia izango dira aintzakotzat hartu beharko dituen ezaugarriak.

Jai eta umore giroan egin ohi da lehiaketa; beraz, antolatzaileek dei egin diete Euskal Herriko irrintzizaleei Urnietara arratsalde pasa etor daitezen eta parte har dezaten iluntzean San Juan plazan bertan izango den lehiaketa honetan, galtzen ari baita, guztiz, belaunaldi berriengan irrintziak egiteko hain berezkoa dugun zaletasuna, eta ez da harrizkoa, ia ez baita garai hauetan gizarte, kultura edo politika ekitaldirik irrintzi eder batez barrua asetzeko motiborik eskaintzen digunik.

Iazko VII. lehiaketan, Nerea Arriaga oriotarra izan zen irabazle helduen atalean eta Jon Tolosa urnietarra haurren mailan.

# Pintura lehiaketa



Berrospe, Alsasua eta Jauregi sari banaketa ekitaldian.

Igandean Urnietako pintura lehiaketaren hogeigarren edizioa antolatu zuten. Egunean bertan, iluntzean, Saroben jakinarazi zituzten irabazleen izen abizenak. Eduardo Alsasua izan zen irabazlea. Bigarren saria berriz, Juan Berrospek eskuratu zuen eta Jon Jauregi herrikidea-

rentzat izan zen urnietar onenaren saria. Juxto Egañaren erretratua egin zuten.

14 urtez azpiko mailan, bestalde, Anitz Jauregi, Euri Jauregi eta Manex Zubeldia margolari gazteen lanak saritu zituzten.





**PARTE HARTZEA**

IRA 1 - URR 14

**PRESTATZEA**

URR 15

**ONARTZEA**

AZA

**KONTU EMATEA**

ABE

**Aurrekontu Irekiak 2017.**

Gipuzkoa hobea eta bidezkoagoa eraikitzeko momentua da orain. Gureagoa den Gipuzkoa. Orain zuk erabakitzen duzu Gipuzkoan zein proiektu nahi dituzun. Informa zaitetz proiektuei buruz, zure ideien berri eman eta parte hartu, zure ustez gure lurraldearentzat interesgarrienak diren proiektuak lehenetsiz.

**Orain Gipuzkoa. Orain zu.**



[www.gipuzkoa.eus/partaidetza](http://www.gipuzkoa.eus/partaidetza)

URRIAREN 14RA ARTE HAR DEZAKEZU PARTE

943 112 111 • [partaidetza@gipuzkoa.eus](mailto:partaidetza@gipuzkoa.eus)

[@OrainGipuzkoa](https://twitter.com/OrainGipuzkoa) [#partaidetza](https://www.facebook.com/OrainGipuzkoa) [OrainGipuzkoa](https://www.facebook.com/OrainGipuzkoa)

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



# Sanmielak 2016 URNIETA

## Urriak 2

### X. Iñistor jaia

Jakutegi plazan

**12:30** X. Maldan-gorako Iñistorra Toka Txapelketa, San Juan plazan.

**14:30** Herri bazkaria.

**16:30** Bertsolariak.

Uxue Alberdi (Getaria), Miren Amuriza (Berriz), Unai Muñoa (Lasarte-Oria) eta Ander Lizarralde (Oiartzun). Gai jartzailea: Amaia Agirre (Villabona).

**17:30** "Urnietar Prestu" 2016 izendapena. Jokin Lizeaga korrikalaria izango da omendua.

**19:00** VIII. Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa, San Juan plazan.

**Helduentzako menua (25 euro)**

- Errusiar entsaladilla.
- Itsas-kabra.
- Karrillerak.
- Hojaldrea.
- Kafea.
- Belar txupittoa, whisky edo patxarana.

**Haurrentzako menua (16 euro)**

- Makarroiak tomatea eta urdaiazpikoarekin.
- Eskalopea txip patatekin.
- Sandwitx izozkia.

**Bazkarirako txartelak aurrez erostea ezinbestekoa da. Azken eguna: Irailaren 28a.**

Jadanik salgai daude ondorengo lekuetan:

URNIETAN

- KANTOI tabernan (San Juan plazan).
- GURIA tabernan (Idiazabal kalea).
- BIKAIN kafetegia (San Juan plaza).

**Antolatzaile:**  
Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra,  
Manuel Larramendi Kultur Bazkunea.

**Laguntzaile:**  
Txanbolin txistulari banda,  
Egape Dantza Taldea.

**Babesle:**  
Urnietako Udala, Aiurri astekaria.



ELKARTASUNEZKO EKIMENA ABIAN JARRI DUTE ANDOAINEN

# “Hodei Olaizola lagundu” ekimena martxan jarri dute

Andoainen sortu berria da “Hodei Olaizola Lagundu” elkarte, Hodei Olaizola 21 urteko mutilari elkartasuna adierazi eta haren aldeko diru bilketari ekiteko.

Olaizolak iazko ekainean istripu larria jasan zuen Hernanin; gerritik behera mugitu ezinik geratu zen, eta gurpildun aulkian dabil harrezkero.

Paraplegikoak zaintzen dituen Toledoko ospitalera joan behar izaten du, eta elkartasun taldeak, beharrezkoak dituen azpiegitura eta arreta medikuari aurre egiteko diru-bilketari ekin nahi dio. Hodei errenteriarra da, kirolari zaildua, eta Bidasoa eskubaloitza taldean jokatzeko zuten istripua eduki arte.

## ISABEL VALENCIA ANDOAINDARRAREN SEMEA

Bere ama Isabel Valencia andoaindarra da; San Juan Bautista zahar egoitzako langilea da, eta hain zuzen ere, elkartasunezko kanpaina aurrera eramateko bertako lankideek eta Escivi Zine eta Bideo eskolako irakasle eta ikasleek osatu dute elkarte.

Zahar egoitzako langileak jarri zuten abian “Hodei Olaizola lagundu” ekimena, eta Escivi eskolako bigarren mailako produktzioa eta errealizazioa ikasle talde bat batu da bertara. Enara Suarez, Unai Cobos, Nagore Perez, Andres Arevalo, Asier Elgezua, Bea Lara eta Nerea Amadoz dira ikasleak, eta Ainhoa Aiertza dute irakasle.

## HAINBAT EKIMEN ABIAN

Taldeak ekimen ugari antolatzeke asmoa dauka hurrengo asteetarako. Lehenengoa, euskararen eguneko diru-biltzea izan zen. Goizez, makaldegian, merkaturatu egin ohi den inguru horretan Hodeiren egoera zabaltzen jardungo zuten, itsulapikoa eskuetan zutela. Arratsaldean, Andoingo kaleetan zehar ibili ziren, Euskararen Egunarekin bat eginez.

Eguerdian herriko elkarte gastronomikoek Euskararen Egunerako prestatutako patata tortilla pintxoak eta marmitakoa dastatu ahal izan ziren Goikoplazan, eta bertan bildutako dirua Hodei Olaizolaren alde bideratu zen.

## ELKARTASUN JAIA

Urriaren 22an, Basteron, goi-



Urriaren 22an, Basteron, goizeko 11:00etatik aurrera, musika jaialdi bikaina iragarri dute, herriko hainbat musika eta dantza taldeen partaidetzarekin. Beheko argazkian, Andoainen aurki daitezkeen itsulapikoak.

*Hodei Olaizolaren ama Isabel Valencia andoaindarra da; San Juan Bautista zahar egoitzako langilea*

zako 11:00etatik aurrera, musika jaialdi bikaina iragarri dute, herriko hainbat musika eta dantza talderen partaidetzarekin. Hona zeintzuk diren jaialdian parte hartzea ziurtatu duten taldeak: Joseba eta Bakartxo dantza eskola, Urki euskal dantza taldea, Zumba, Lorra-

tzak, Klaap dantza taldea, Sevillana taldea eta bertsolariak.

Ekitaldian zehar, makina bat kirol eta musika taldek emandako opariak (kirola edo musikari sonatuek sinatutako kamisetak eta diskoak, besteak beste) zozketatuko dira ikusleen artean. Sarrera bost eurotan erosi ahal izango da, Udaleko Ataria zerbitzuan edo eta Urrats inprimategian.

Bestalde, itsulapikoak herriko hainbat denda eta tabernetan jarriko dituzte herritarrek borondatea utz dezaten bertan, Hodeiri laguntzeko. Kar-



toiz egindako eskubaloia da kanpainaren ikurra, eta bistabistan egongo dira baloiaren

*Hodeiren alde herriko hainbat denda eta tabernetan itsulapikoak jarri dituzte herritarrek borondatea bertan utz dezaten*

forma hartzen duten itsulapikoak (Ciclos Patxin, Urrats inprimategian eta Ormendi eta Kurpil Garmendia kirol dendetan).

Kanpaina herriko elkarte, ikastetxe, merkataria, enpresa eta herritar orengana zuzentzeko asmoa dute “Hodei Olaizola lagundu” elkarteak, eta jada kontu korrontea ireki dute diru ekarpenak bertan egiteko. Honakoa da (Laboral Kutxa): ES87-3035-0026 21 0260075543.

Informazio gehiago nahi izanez gero: hodeirolaizolalagundu@gmail.com.

Hodeiren kasua oihartzun zabala ari da jasotzen, eta aurretik ere Bidasoaldeko zenbait herritan burutzen ari dira Hodeiren aldeko elkartasunezko ekimenak. Besteak beste, bere lagun eta ikaskideek arto futbol txapelketa antolatu zuten Lezon joan den urtarrian. Bidasoa taldeko jokalariren gurasoek ere kontu korrontea irekita daukate eta Artaleku kiroldegian itsulapikoak jarri ohi dituzte dirua biltzeko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Euskara Zuzendaritza



# URNIETA KIROL ELKARTEA / FUTBOLA 2016/17



## PREFERENTE MAILA

Aitor Harto 1  
 Juan Carlos Solis 2  
 Javi Pastor 3  
 Adrian Gomez 4  
 Nestor Orozco 5  
 Imanol Andres 6  
 Yeray Moreno 7  
 Mikel Miranda 8  
 Miguel Ramos 9  
 Iker Ramos 10  
 Ivan Diaz 13  
 Aitor Aramendi 14  
 Peio Martin 15  
 Iñigo Esnaola 16  
 Ander Hernandez 17  
 Mikel Garmendia 18  
 Ander Loinaz 19  
 Alberto Garcia 20  
 Ibai Garmendia 21  
 Endika Garcia 22  
 Dani Gomez 23  
 Xabi Ansa 24  
 Jon Gortazar 26



## SENIOR NESKAK

Naroa Garcia 1  
 Irene Legarra 2  
 Ane Dominguez 3  
 Maialen Diaz 4  
 Eider Manterola 5  
 Lorea Barkaiztegi 6  
 Marta Ollazarikieta 7  
 Lorena Busto 8  
 Ixiar Altzaguren 9  
 Nagore Huizi 11  
 Irati Uranga 12  
 Irene Manso 13  
 Enara Pellejero 15  
 Amaia Arenas 16  
 Lorena Arias 19  
 Leyre Larrañaga 20  
 Alba Cabrera 22  
 Iosune Larrayoz 24



## JUBENIL MAILA A

Joseba Vela 1  
 Oier Jimenez 2  
 Unai Agudo 3  
 Aritz Lekuona 4  
 Iñigo Diaz 6  
 Mikel Goikoetxea 7  
 Lander Vicente 8  
 Jon Iribar 9  
 Eneko Ramirez 10  
 Xuban Balda 11  
 Lander Sanchez 14  
 Diego Carballeda 16  
 Andoni Rekondo 17  
 Aritz Erasun 18  
 Miguel Lajas 20  
 Asier Lozano 21  
 David Galan 23  
 Jon Ander Perez 24  
 Edorta Ibarгойen 25  
 Aitor Larbide 26



# URNIETA KIROL ELKARTEA / FUTBOLA 2016/17



## JUBENIL MAILA B

Joel Pezonaga 2  
Iosu Sarasua 3  
Ibai Carvajal 4  
Dani Cumbres 6  
Cristian Alfonso 7  
Mikel Garcia 8  
Ariz Rodriguez 9  
Jon Bueno 10  
Alvaro Robledo 11  
Abel Solis 12  
Ibai Usabiaga 13  
Beñat Goiaran 14  
Aitor Murua 17  
Iñigo Gimón 18  
Gaizka Tolosa 19  
Julen Labaka 20  
Iñigo Fernandez 21  
David Cuenca 22  
Andoni Balda 23



## KADETE MAILA A

Xanti Garcia 1  
Kevin Iraola 2  
Andoni Izagirre 4  
Andoni Almorza 6  
Andoni Oyarzabal 7  
Xabi Garmendia 8  
Beñat Beristain 9  
Martin Quel 10  
Mikel Diez 11  
Unai Martinez 13  
Mario Ruiz 14  
Romiko Dubleski 15  
Ekain Cachafeiro 16  
Jon Ander 17  
Ibai Sanchez 18  
Iker Godoy 19  
Sergio Fernandez 21  
Unai Aparicio 21  
Aimar Ruiz 23  
Steven Romero 24  
Igor Matellanes 25



## KADETE MAILA B

Edu Kozbaru 1  
Michael Oke 2  
Martin De Bernardo 4  
Markel Mujika 6  
Sergio Serrano 7  
Oihan Fernandez 8

Dani Gutierrez 9  
Iker Garcia 10  
Hodei Rada 11  
Asier Agudo 12  
Egoi Alonso 13  
Iñigo Alfonso 14  
Alex Taraena 16

Oihan Piñeiro 17  
Ander Grajeras 18  
Angel Marquez 19  
Ekain Fernandez 23  
Ander Atxukarro 24  
Iker Sorozabal 25



## KADETE MAILA

Garazi Urio 2  
Amane Rojo 3  
Haizea Belaunzaran 4  
Irati De Torres 5  
Lady Murillo 6  
Maria Goikoetxea 7

Ane Marin 8  
Elena Soroeta 9  
Ane Etxeberria 10  
Nahia Gonzalo 11  
Maitane Arretxe 12  
Maddi Intxaurren 14  
Izaro Diaz 17

Laura Santamaria 19  
Ane Otaegi 21  
Irati Eizmendi 22



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRI-NURINTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larumendi  
Kultur Buzina

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurilaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek  
bi udalerri hauen  
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Urrieta

**Argitaratzailea:**

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

**Aiurri eskuragarri:**

Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urrietan, 30 euro. Ale batzuko eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.eus  
**Webgunea:** www.aiurri.eus

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.eus  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.eus  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus  
www.aiurri.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.eus  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaleak:**

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urrieta).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

# Agenda

IRAILAREN 29TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus)

## Zinema

**Andoain**

- "Los hombres libres de Jones":  
Irailak 24: 19:30, 22:00.  
Irailak 25: 19:30.  
Irailak 26: 19:30, 22:00.
- **Printze txikia**, haurrentzat:  
17:00. Larunbata, igandea.
- **The visit**, dokumentala:  
19:00. Doan.  
Urriak 5, asteazkena.

## Ikastaroak

**Andoain**

- **Andoaingo AEK euskaltegia:**  
Klaseak, guraso taldeak,...  
Matrikula epea: Irailak 29.  
Informazioa: 943 59 17 04.

**Urrieta, Sarobe**

- Urrietako **antzerki tailerra**.  
Matrikula epea: Irailak 30.

## Erakusketa

**Andoain, Bastero**

- **Luis Tolosaren arkitektura**  
Irekiera ekitaldia:  
Irailak 30, ostirala. 19:00.  
Erakusketa zabalik:  
Irailak 30-Urriak 29.

## Matrikulazioa

**Urrieta**

- UF1210 Kolorearen kudeaketa argazki-prozesuan. 60 orduko ikastaroa, urriaren 17an hasita. Asteleheneetik ostegunera. 18:00-21:00. Doan. Matrikula egiteko epea: urriak 3. Informazioa: 943 551 789 nekaneb@salesianosurnieta.com

## Deialdiak

**Urrieta**

- Udalak aisialdiko begirale edo zuzendari titulua euskaraz atera zutenentzat dirulaguntza eskatzeko epea irekiko du, urriaren 31ra arte.

**Andoain**

- **Axeri Dantza** Nafarroa Oinez. Entsegu-bilera: 20:00 Ondarreta. Urriak 10, astelehena.
- **Bilkura isila** ikastolara bi gurasoen askatasuna eskatzeko. 17:00 Bastero plaza. Irailak 30, ostirala.

## Jaiak

**Urrieta**

- **Sanmielak 2016**  
Egiataraua eta informazio osagarria gehigarri berezian. Irailak 29-Urriak 2.
- **Xoxokako jaiak 2016**  
**Urriak 3, astelehena:**  
12:00 Jaiaren hasiera.  
14:00 Bazkari herrikoia Irazu eta Egañarekin, Adarra jatetxean.  
21:00 Afaria Xoxokako eskolan. Bakoitzak berea eramanda.  
23:00 Elustondo anaiak.
- Urriak 4, asteartea:**  
17:00 Idi-asto proba.  
20:30 Zahagi-ardoa. Janaria bakoitzak berea eramanda.  
23:00 Gaur sorpresa.
- Urriak 7, ostirala:**  
12:00 Sega apustua eta, jarraian, gaztetxoaren erakustaldia.

## Farmaziak

**Eskualdea**

- Andoain: **Pajares**. Zumea, 20. Urrieta: **Etxebeste**. Hernani.
- Gazez: **Urrutia**, Hernani. Urriak 1, 2.

## ZORION AGURRAK

**ZORIONAK**



Gure etxeko printzesek urteak bete berri dituzte, **Anek** 5 urte iada eta **Nahia** 7!! Muxu potolo bana bakoitzari. Muuuuu!!!

**ZORIONAK**



Irailaren 29an **Maddi** etxeko printzesak 4 urte beteko ditu. Ederki ospatuko dugu pottoli! Txokolatetzko muxuak etxekoan partetik.

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



Osaba **Arkaitz** abuztuaren 24an urteak bete zituen; zenbateraino esango... Muxu potolo eta handia. **Nahia** eta **Ane**.

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



Zorionak **Jokin!** lau urte bete dituzu. Muxu potoloak, amonaren eta aitonen partetik.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



Zorionak printzesa! **Maddik** irailaren 26an 6 urte! Zapora pilazko muxu potolo bana. Aitaxo, amaxo eta Elene.

**ANDOAIN**

**ANDOAIN**



**ZORION AGURRAK AIURRIN**  
Erraza da, eta dohainik.

Emaillez: [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)

Whatsappa: **619 163 537**

## Urkirekin Nafarroa Oinezera, bolondres lanetara

Viana-Lodosa ikastolara dagokio aurtengo Nafarroa Oinezaren antolaketa. Ikastola txikia da eta hori dela eta Urki dantza taldeak bolondres lana egiteko deialdia egin du. Familian eta lagunartean joateko plan ezin hobea da, urriaren 16koa. Hauxe da Andoaindik antolatutako egitaraua:  
07:30 Busean irteera.  
09:30-15:30 Txosnan lanean.  
18:00 Busean itzulera.

Informazioa: 627 441 605.

**URKI DANTZARI**

**BIGARREN EREMUAN**

Urki dantza taldeak aurtengo Nafarroa Oinezaren dantza egiteko aukera izango du, goizeko 11:00tan hasita bigarren eremuan.

**VIANA-ANDOAIN LOTURA**

1992ko Nafarroa Oinezetik andoaindarrok Bianako ikastolarekin oso gertuko harremana dute, urtez-urte gauzatu joan dena. Esaterako, Haurren Euskal Jaialdira hango dantzariak maiz etorri izan dira.

## Botikak biltzeko deialdia

Andoaingo **Hurria-Sahara** elkarteak botikak jasotzeko kanpaina abiatu du, datorren asteartera (urriak 4) arte. Kanpaina Andoaingo sei farmaziatan burutuko da. Bilduko diren botiken zerrenda honako hau da: Betadinea, Ibuprofenoa eta Paracetamola haur eta helduentzat, Nolotila, suero fisiologikoa, gasak, inflamazioen aurkako krema, tiritak eta esparadrapoa.

Saharrek bizi dituzten bizi

baldintza kaskarrak eta azken urteotan pairatzen ari diren uholdeekin, basamortuan bizi ahal izatea mugaraino eramaten ari dira. Elikagai eta botika eskasia areagotzen ari da, horregatik, Hurri-Sahara elkarteak andoaindarrei aipatutako botikak sahararren esku uzteko dei berezia egiten die.

Eta berriro eskertu, andoaindarrek behin eta berriro erakutsi duten elkartasuna eta eskuzabaltasuna.

AIURRI ETXEAN JASOTZEN  
HASTEKO ZEREN ZAIN ZAUDE?

ANDOAINGO ETA ESKUALDEKO ALBISTEAK ASTERO, ETXERAINO



**HAMABOSKARIA - ALDIZKARIA**  
24 orrialde  
urtean **22** aldizkari



**ASTEKARIA - TABLOIDEA**  
12-16-24 orrialde  
urtean **42** astekari

URTE OSOKO HARPIDETZA SARIA: 35 EURO

**1 DEITU**  
943 300 732  
08:30-17:30

**2 FAXA**  
943 300 731

**3 EMAILA**  
[idazkaritza@aiurri.eus](mailto:idazkaritza@aiurri.eus)

**4 POSTAZ**  
Arantzibia 4-5, behea  
20.140 Andoain

**5 WEBGUNA**  
[Aiurri.eus](http://Aiurri.eus)

